

PABLO ANTOÑANA: **Odola oroi** (eleberriaren aurkezpena: 2019-05-28)

1. P.A.ren nobelagintza:

*El capitán Cassou* = *Cassou kapitaina* (1959an idatzia; 1993an eta 2013an argitaratua)

*No estamos solos* = *Ez gaude bakarrik* (1963an argitaratua eta 1993an berrargitaratua)

*La cuerda rota* = *Soka etena* (1962an idatzia; 1995an argitaratua)

*El sumario* = *Sumarioa* (1964an argitaratua; 1985an berrargitaratua)

*Pequeña crónica* = *Kronika txikia* (1975an argitaratua; 1984an, 1985an eta 2002an berrargitaratua; Luis Mari Larrañagak euskaratua eta 2010ean eta 2015ean argitaratua)

*Relato cruento* = *Odola oroi* (1978an argitaratua; 1996an berrargitaratua)

(Aitortu behar dut haxe izan zela nik irakurri nuen P.A.ren lehen liburua, Iruñeko Aurrezki Kutxak saritu zuenean, argitalpen berezi hartan: oesteko nobelen tamainera eta itxura zituen liburuxka zen, orriak desitsasten ziren irakurri ahala... P.A. kexu egon zen betirako, argitalpen hura ia urtebetez berandutzeaz gain, azkenik oso modu desegokian gauzatu zelako)

–6 eleberri, 1-2 eta 5-6 nobela laburrak (eta genero honen lehiaketetan aurkeztu zituen P.A.k, lehen edo bigarren saria lortu zuen) eta gai belikoa jorratzen zutenak; 3-4 nobela kanonikoak, gerra ondoko gai sozialak jorratzen zituztenak.

– *Odola oroi* izan zen P.A.k idatzitako azkena, aurreko *Kronika txikia*-rekin zerikusi handia duena, gaiez eta estetikaz:

a) Bietan aitoren etxe eta familia baten gainbehera kontatzen da (Vignacourt, Arrizibita), Nafarroako hego-mendebaldeko Lizarraldean kokatuta (geroxeago P.A.k “loarko errepublika” deituko zuen zonaldean) eta denbora aldetik 36.ko gerra zibilean girotuta, baina ez soilik gerran:

- *Kronika txikia*-ren kontakizunak XX. mende hasieratik, gerra ondorego lehenengo hamarkadaraino luzatzen dira;

- *Odola oroi* eleberrian XIX.-XX. mendetako aurrekari historikoak, konflikto belikoak batez ere, sartzen dira, frantzesen gerratik hasi eta 36ko udako altxamenduekin amaitzeko, karlistadek testuaren tarte handia betetzen dutelarik.

b) Estetika aldetik, azken bi eleberrietan P.A.ren heldutasuna eta maisutasuna nabarmentzen dira:

- Aurreko lau nobeletan aurki ditzakegun zalantzak edota desoreka estetikoak desagertzen dira: idazlearen sena expresionista (Valle-Inclán, Faulkner eta Dostoievski autore kuttunenak izanik) ez zen ongi egokitzen 60.ko hamarkadan nagusia zen joera literarioarekin, hau da, errealismo sozialarekin.

-70.ko azken bi eleberriak idatzi baino lehen, P.A.k aukera berezi bat izan zuen bere prosagintzan trebatzeko, *Diario de Navarra* egunkarian “Las tierras y los hombres” kolaborazioak idaztean. 1963. urtean ekin zion igandetan argitaratzen zizkieten testuak erredaktatzeari, eta 1977ra arte jarraitu zuen; osorik 700 artikulua inguru dira. Hasierako testu gehienak ohar kostunbristak eta deskriptiboak ziren; pixkanaka pixkanaka ipuinak sartu zituen, gertakizun bitxiak, iraganean girotuta, haietariko asko gerra zaharretan, berdin gure lurretan edo urrutian...; beti narrazio teknika, lexiko eta sintaxi aberatsen bidez. Eta 1968 urterako esan daiteke lortua zuela idazteko estilo propioa, berea eta beste inorena zena, azken bi eleberrietan gauzatuko zuena.

-Parekorik ez al du, ba? Garaiko “errealismo magikoa” joeran kokatzen ditugun idazleekin zerikusia du P.A.ren estiloa, eta Bianakoak askotan aipatu du Carpentier edota García Márquez idazleekiko miresmena... Baina ez zituen imitatu, nire ustez, Faulkner estatu batuarraren eragina izan zuten guztiek, nork bere erara garatua. Bestalde, P.A.ren idazkietan ez da apenas agertzen alde fantastikoa, bereziki nobeletan; aldiz, gerra zaharren zama historikoa, oso faulknerianoa dena, *Odola oroi* honetan nabarmena da.

(Iruñeko Aurrezki Kutxaren lehiaketan saritutako idazlanak prensa aurrean aurkezteko garaian, Victor Manuel Arbeloak (José Joaquín Arazuri eta Raúl Guerra Garridorekin batera lehiaketaren epaimahaikidea zenak) P.A. idazle kolonbiarrarekin parekatu zuen adierazpen baliabideengatik eta denborako planoen gainjartzeagatik. Geroxeago, P.A.k berak Faulkneren eragina onartu zuen, gaztetan ingelesez irakurri bait zuen, eta estiloan Valle-Inclán zuela eredu, desagertzeaz zeuden hitz iradokizailleak idazle galiziarren testuetan eta nekazari zaharren ahotan aurkitzen zituelako, besteak beste)

## 2. Testuingurua

Franco diktadorea hil ondorengo transizio urte haietan, faszistek gerra garaian hildakoen gorpuzkinen bilaketa hasi zen, Erriberako eta Lizarra aldeko herri askotan. P.A.k lagundu zuen, bereziki J. M. Jimeno Juriok hasitako azterketa historikoan kolaboratzaile lanetan, udal idazkaritza zeraman herrien artxiboetan dokumentazioa aztertu zuen (Antoñanak eta Jimeno Juriok trukaturako gutun batzuk idazlearen paperen artean gorde dira; horien arabera, P.A. hasi zen laguntzen J.J.ri aurreko ikerketa batean, Errepublikara garaiko Euskal Estatutuaren ingurukoan, hain zuzen).

### 3. Itzulpena (Luis Mari Larrañaga)

–Izenburua: oso adierazgarria eta eufonikoa iruditzen zait, naiz eta kontakizunaren kontzeptua oroimenarekin ordezkatu.

–Akatsa (paratestuan): eskeintza falta da!: “Elvira emazteari, zeina gerraren maldizioak jo bait zuen, eta Elvira eta Blanca alabei, gudari bat bere ofizioan inoiz ezagun ez dezaten”.

–Oso itzulpen aberatsa:

- a) lexikoa: duela mende bateko hitzak erabiltzea tresnak, jantzkerak, altzariak, lanbideak... izendatzeko, iraganeko gizartea eta bizitzak azaltzeko ezinbesteko baliabidea zuen P.A.k, eta Luis Marik euskaraz emateko egin behar izan du lan itzela.
- b) Sintaxia: xehetasun guztiak, askotan pertsonaien esanak barne, perpausa barruan era antolatuan adierazteko periodo luzeak, bihurriak eta esaldi parentetikoekin idazten zituen P.A.k, eta Luis Marik joera sintaktiko bera mantendu du euskal bertsioan.

Aberastasunak, jatorrizko bertsioan bezala, irakurketa zailtzen du zenbait pasarteetan, bereziki une deskriptiboetan eta pertsonaien ahotsak edo fokalizazioak narratzailearen diskurtsoan nahasten direnean: P.A.ren testuak ez dira errazak, irakurleon arreta eskatzen duten horietakoak dira, baina zailtasun guztiak irakurketa aktiboagoarekin gaindituta, goi mailako esperientzia literarioaz goza dezakegu.